



HONDARRIBIKO UDALA

Inauteriak 2015

KARROZA ETA KONPARTSEN LEHIAKETAREN OINARRIAK

Hondarribiko Udalak 2015eko "Inauterietako karroza eta konpartsen lehiaketa" antolatu du. Ondorengo oinarriak ditu lehiaketa honek:

PARTE HARTZAILEAK

Edonork edo edozein taldek har dezake parte, adina edo nazionalitatea edozein izanik ere.

Konpartsak. Ez dago gutxieneko neurririk, ez eta derrigorrezko baldintzarik ere. Lau talde handitan banatzen dira:

A taldea: pertsona bakarrak

B taldea: 2 eta 5 lagun bitartean.

C taldea: 6 eta 15 lagun bitartean.

D taldea: 15 lagun baino gehiago. Lehiaketan gehienez D taldeko 15 konpartsak parte hartu ahal izango dute, Hondarribiko taldeak lehentasuna izango dutelarik.

D talde honetan ondorengo banaketa egingo dugu:

Hondarribiko D taldeak: Hondarribian erroldatutako talde antolatuak eta parte hartzaileen gutxieneko %71 Hondarribian erroldatuak edo Hondarribian jaiotako lagunek osatzen duten talde ez antolatuak.

Hondarribikoak ez diren D taldeak: Egoitza soziala Hondarribian ez duten talde antolatuak edota partehartzaileen %70 edo gutxiago Hondarribian sortuak edo erroldatuak dituzten taldeak.

Karrozak. Ez dago ez derrigorrezko baldintzarik neurriari dagokionez, ibilgailu baten gainean egina edo atoian eramana izan daiteke; soinu ekipoa izan dezake eta sua edo elektrizitatea duten karrozetan su-itxalgailu bat eramane behar da.

IZENA EMATEKO

Hondarribiko Udaletxeko BAZ bulegoan eman behar da. Epea 2015eko otsailaren 5ean bukatzen da, 13:30ean.

EPAIMAHAIA

Epaimahaiko kideak Hondarribiko Udaleko ordezkariak eta Hondarribiko eragile kulturek osatuko dute.

SARIAK



HONDARRIBIKO UDALA

Epaimahaiak ondoko ezaugarriak kontutan hartuz: Originaltasuna, Aurkezpena, Giroa (umorea, musika, etab.), ondorengo sari bereziak emango ditu:

A Talde onenari garaikurra eta 150,00 €
B Talde onenari garaikurra eta 200,00 €
C Talde onenari garaikurra eta 300,00 €

Hondarribiko D Talde onenari garaikurra eta 800,00 €
Hondarribiko 2. D talde onenari 600,00 €
Hondarribiko 3. D talde onenari 400,00 €

Hondarribiko karroza onenari garaikurra eta 800,00 €
Hondarribiko 2. karroza onenari 600,00 €
Hondarribiko 3. karroza onenari 400,00 €

Hondarribikoa ez den D talde onenari (karroza izan ala ez) garaikurra eta 800,00 € (Sari bakarra)

Sari hauek gain, Hondarribiko Udalak konpartsen eta karrozen parte hartzea sustatzeko asmoz konpartsa bakoitzari (A, B, C, D taldeei) parte hartzeagatik saria emango dio. Kopuruak Udalak jartzen ditu horretarako aurrekontuetan onartu den kopuruaren baitan, eta talde bakoitzaren ezaugarrien arabera, alegia: karroza edo konpartsa den, partaide kopurua, argiztapena, musika, emanaldia, dantza, parodia...e.a. Epaimahaiak gutxiengo ezaugarriak betetzen ez dituen taldea sari gabe utzi edota zenbatekoa aldatu ahal izango du.

Ez da sarituko lehiaketan izenik eman ez duen karroza edo konpartsarik.

EPAIA ETA SARI BANAKETA

Lehiaketaren emaitzak 2015eko otsailaren 16an arratsaldeko 19:30ean udaletxeko Areto Nagusian gauzatuko den ekitaldian emango dira jakitera. Bertan saridunei garaikurrak emango zaizkie.

BESTERIK

- Saritua izateko ezinbestekoa izango da parte hartzen dutenek inauteriko igandean zehaztuko den ibilaldia egin dezaten.
- Ekitaldiak ahalik eta azkarren egin daitezten, konpartsa bakoitzak ordezkari bat izendatuko du eta hau arauak betetzeaz arduratuko da. Gainera berarekin harremanetan egoteko telefono mugikor baten zenbakia eskainiko digute.
- Konpartsa bakoitzaren partizipazioa esleitzen zaien ordenaren arabera izango da.
- Esleipena zozketaz egingo da, **otsailaren 6an, eguerdiko 13:30ean** Udaletxeko Areto Nagusian.
- Lehenbizi egoitza soziala Hondarribian duten konpartsak aterako dira, eta ondoren gainontzekoak. Ondorioz 2 zozketa egingo dira.
- Konpartsak (A, B, C eta D) igandean, **otsailaren 15ean, goizeko 10:30etan**, San Juan de Diosen bilduko dira. Desfilea Arma Plazatik abiatuko da.
- Aurtengo ibilbidea ondorengo zango da: Arma Plaza, Minasoroeta, Sabin Arana Goiri, Bernat Etxepare, Zuloaga Kalea eta San Pedro Kalea (zozketa egunean ibilbidea baieztatuko da).



HONDARRIBIKO UDALA


- Erakunde beraren izenean ezin izango da karroza bat baino gehiago aurkeztu
- Parte hartu nahi duten konpartsen partaideek, gai berbera adierazi beharko dute. Karroza, konpartsa edo talde bakoitzak kartel bat bere izenarekin eraman beharko du epaimahaiak jakin dezan zein den bakoitza.
- Talde bakoitzak musika bakar bat eramango du, soinu ekipoak gehienez 1.500 W izango ditu eta konpartsara zuzendua jarrita egon beharko du beste konpartsei enbarazurik ez egiteko.
- Debekatuta dago konpartsa edo karrozan publizitatea egitea.
- Sariak jaso ahal izateko kontu korronteko jabea den agiria ekarri beharko da. **Sari hauei dagokien PEFZ kenduko zaie.**

AZKEN ARAUA

Lehiaketan parte hartzeko izena emateak berekin du arautegi hau onartzea. Epaimahaiaren eskumena da lehiaketa honetan sortu daitezkeen arazoek gaineko erabakia hartzea.

Hondarribian, 2015eko urtarrilaren 20an

Alkatea,



Izp.: Aitor Kerejeta Cid

HONDARRIBIKO UDALA



2015eko INAUTERIAK

LEHIAKETETAN IZENA EMATEKO ORRIA

KONPARTSAREN IZENA

<u>MOTALATEA</u>	<u>x MARKATU</u>	<u>KOPURUA</u>
A TALDEA: LAGUN BAKARREKOA		
B TALDEA: 2 ETA 5 LAGUN BITARTEAN		
C TALDEA: 6 ETA 15 LAGUN BITARTEAN		
D TALDEA: 16 LAGUN BAINO GEHIAGO		
	<u>KOPURUA</u>	<u>KOPURUA</u>
HONDARRIBIKOAK	BESTEAK	
	BAI	EZ
KARROZA		
	BAI	EZ
NORBERAREN MUSIKA		

ELKARTEAREN DATOAK

IZENA	
HELBIDEA	
TELEFONOA:	C.I.F.
BANKU KONTUA * (20 digito)	

Oharra: Izena emateko orriarekin batera, banku kontuaren titularitatea egiaztatzen duen agiria -Elkartearena edo taldearen ordezkariarena- aurkeztu beharko da

TALDEAREN ORDEZKARIA

IZENA	TEL.:
NAN:	